



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-12-22ko PRESAZKO EZOHICO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko abenduaren hogeita bian, arratsaldeko 17:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, presazko ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkateorde lehena – Begoña Garmendia Vazquez andrea – buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Itziar Arkonada Lizarraga andrea, Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du: Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateordeak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

**LEHENENGO GAIA
BILKURAREN PREMIAZKO IZAERA BERRESTEA.**

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 46.2 artikuluko b idazlerroan araututakoa kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Nahikoa arrazoi badaudela kontsideratuz, bilkuraren presazko izaera berrestea.

**BIGARRENGO GAIA
HERRIKO OSTATU ZAHARRA ETA ATERPETXEA USTIATZEKO EMAKIDA
ADMINISTRATIBOAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA EZ ONARTZEA.**

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espeditentia onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, Luxio Aizpuru Azpiazuri esleitu ziola, behin-behineko izaeraz, Beizamako “Ostatu Zaharra” tabernaren ustiapen eskubidea.

Ikusirik, lizitazioa arautzen duten baldintza administratibo partikularretako zortzigarren baldintzan agintzen den dokumentazioa aurkeztu ez duela, besteen



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

artean, lizitatzaillearen gaitasunaren egiaztagiria, kaudimena egiaztatzen dituzten agiriak eta ustiapenari buruzko txostena.

Ikusirik, aurretik aipatutako guztiak jadanik errekeritu zitzaizkiola behin behineko esleipenaren jakinarazpenarekin batera.

Ikusirik, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak 130 eta 135 artikuluetan ezarritakoa, behin-behineko eta behin betiko esleipenen arteko epean espedientera esleipendunak atxiki beharreko dokumentazioari buruz.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Behin betiko esleipena ez egitea.

Bigarrena.- Beizamako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta, aukeran, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboa eskubidea esleitzeko jardunbidea hutsik deklaratzeko.

Hirugarrena.- Fidantza itzultzea behin kontsumoak, ondasunen egoera egiaztatu eta guztiaren likidazioa egin ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

HIRUGARRENGO GAIA

HERRIKO OSTATU ZAHARRA ETA ATERPETXEA USTIATZEKO EMAKIDA ADMINISTRATIBOAREN BARRUAN, JABETZA PUBLIKOA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK UDALAK BERRESKURATZEA.

Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espedita onartu eta hura esleitzeko lizitazio-jardunbideari hasiera ematea erabaki zuen.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, besteak beste, Luxio Aizpuru Azpiazuri esleitu ziola, behin-behineko izaeraz, Beizamako “Ostatu Zaharra” tabernaren ustiapen eskubidea.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, behin-behineko esleipenaren ondoren sortutako egoera errepikatua: jarrera txarra zerbitzua ematerakoan; gisa honetako zerbitzuak eskatzen duen atentzio falta; ustiapenean lanean ari direnen mozkorkeria; lokal eta ondasunen abandonua;... guztia, zerbitzu publiko izaera duen ustiapena egokiro aurrera eramateko gaitasun gabezia nabarmena suposatzen duelarik.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako Ostatu Zaharra tabernaren, honi aukeran dagokion etxebizitzaren eta aterpetxea ustiatzeko emakida administratiboaren xedea diren ondasunen jabetza berreskuratzeko prozedurari hasiera ematea.

Bigarrena.- Luxio Azpiazu Aizpuruari errekerimendua luzatzea aipatu ondasunak udalaren esku jar ditzan.

Hirugarrena.- Hiru eguneko epea ematea alegazioak aurkez ditzan.

Laugarrena.- Beizamako Ostatu Zaharra tabernaren, honi aukeran dagokion etxebizitzaren eta aterpetxea ustiatzeko emakida administratiboaren xedea diren ondasunen abandonua ikusirik eta horien segurtasuna bermatzeko, ondorengo neurriak hartzea behin-behineko izaeraz: aipatutako ondasunetarako sarrera ekiditea udalaren baimena izan ezean eta dagokion prezintua jartzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARRENGO GAIA
HERRIKO OSTATU ZAHARRA USTIATZEKO AXUN GALARRAGA
LASAREKIN HITZARTURIKO KONTRATUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA
ETA EGINDAKO ESKAEREI ERANTZUNA EMATEA.

Ikusirik, Beizamako Udalbatzak 2009ko urriaren 16an egindako osoko bilkuran erabaki zuela, besteen artean, Beizamako Herriko Ostatu Zaharra ustiatzeko Axun Galarraga Lasarekin hitzarturiko kontratuaren likidazioa onartzea.

Ikusirik, hartutako erabakiaren aurrean, Axun Galarraga Lasak eskaera motibatua egin duela, udal honek egindako likidazioaren proposamenaren hainbat punturekin bere ezadostasuna erakutsiz.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, sukalde eta labeen egoera adieraziz espedientean dauden argazkiak eta udal hau aholkatzen duen arkitektoaren txostena.

Kontuan hartuz, 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, 2000ko ekainaren 16koak, Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko testu bategina onartzen duenak 113.4. artikuluan araututakoarekin bat, kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, inkautatu egingo zaio bermea eta, gainera, sortutako kalte eta galeren kalte-ordainak eman behar dizkio Administrazioari, inkautatutako bermearen gainetik doan zenbatekoraino.

Kontuan hartuz, aipatutako arauaren 112 artikuluan araututakoarekin bat, Udalari dagokiola erabaki hau hartzea.

Kontuan hartuz, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 22.1.j) eta n) artikuluetan ezarritakoa plenoaren eskumenei buruz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Axun Galarraga Lasak egindako eskaera partzialki onartzea.

Bigarrena.- Ekainaren 22a arte egindako kontsumoak egoztea soilik.

Hirugarrena.- Argiteriaren konponketa lanek suposatzen duten gastua ez egoztea.

Laugarrena.- Sukalde eta labearen garbiketa kostua Axun Galarraga Lasari egoztea.

Bosgarrena.- Likidazio proposamen berria jakinaraztea eta 10 eguneko epea ematea Axun Galarraga Lasari alegazioak egiteko. Ezadostasuna adieraziko balitz, espedientea Euskal Gobernuako Aholku Batzorde Juridikora igorria izango da.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARRENGO GAIA

HERRIKO OSTATU ZAHARRA USTIATZEKO MARKEL SANZ ATORRASAGASTI ETA GORKA IGARTUA MENDIZABALEKIN HITZARTURIKO KONTRATUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA ETA EGINDAKO ESKAEREI ERANTZUNA EMATEA.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, herri honetako Ostatu Zaharra Tabernaren (eta –aukeran-, honi dagokion etxebizitza eta udal aterpetxea) ustiatzeko emakida administratiboaren erregimenean kontratazio-espedientea onartu eta hura esleitzeko lizitazio-



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

jardunbideari hasiera ematea erabaki zuela.

Ikusirik, lizitazio-iragarkia 2009ko martxoaren 4an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lehiakidek beren proposamenak aurkez zituzten. Inolako proposamenik jaso ez zenez, lizitazio hau hutsik deklaratu zuen 2009ko apirilaren 29n egindako udalbatzak.

Ikusirik, Beizamako udalerrarentzat gisa honetako azpiegitura bat edukitzeak suposatzen duenaren jakitun, Udalak, zegokion jardunbide negoziatuari hasiera eman ziola, eta horretaz gain, interesdun potentzialen bila hainbat kontaktu egin zituela inguruko ostalaritza eta sukaldaritza eskolarekin batetik eta inguruko egunkarietan (hitza) prozesuaren berri emanez. Guzti honek bere fruitua eman zuela, hiru interesdun azaldu zirela eta, Udalak, prozedura irekian erabilitako baldintza orriak helarazi zizkiela, bertan jasotako klausulatan oinarrituz proposamenak aurkezteko epea emanez

Ikusirik, 2009ko maiatzaren 27an egindako plenoan, udal korporazioak, aurkeztutako hiru lehiakideen proposamenak aztertu eta baloratu ondoren, Gorka Igartua eta Markel Sanzi esleitu ziela kontratua behin behineko izaeraz.

Ikusirik behin betiko bermea eratzear zeudela lizitatuak bai eta erantzukizun zibileko aseguru poliza ere, baina, kontuan hartuz, 2009ko maiatzaren 27an ospatutako Osoko Bilkurak gai hau presazkoa eta premiazkoa zela adostasunez adierazi zuela, 2009ko ekainaren 26an egindako osoko bilkurak, besteen artean, Gorka Igartua eta Markel Sanzi esleitu zien kontratua behin betiko izaeraz, egiteko falta ziren izapideak lehenbailehen betetzea eskatuz.

Ikusirik, esleipendunek esleitutako ondasunen jabetza hartu eta kudeaketa egin zutela.

Ikusirik, irailerako bi esleipendunek beraien bazkidetza hautsi egin zutela eta Markel Sanz Atorrasagastik bakarrik jarraitu zuela aurrera.

Ikusirik, 2009ko irailaren 4an aurkezturiko idazkian, emakidadunak esleipena amaitutzat ematea eskatu zuela.

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko irailaren 14an egindako ezohiko bilkuran, udal korporazioak erabaki zuela, besteak beste, egindako esleipena eta kontratua deuseztatzeko jardunbideari hasiera ematea, Gorka Igartua eta Markel Sanz-ek kontratuaren betebeharrak ez beteagatik eta emakida arautzen duten administraziozko baldintza orri partikularretan jasotako hainbat betebeharrak ez



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

betetzeagatik (hala nola garbitasuna eta azalpenik gabeko ixteak).

Ikusirik, Beizamako udalbatza plenoak, 2009ko urriaren 16an egindako bilkuran erabaki zuela, besteak beste, Herriko ostatu zaharra ustiatzeko Markel Sanz Atorrasagasti eta Gorka Igartua Mendizabalekin hitzarturiko kontratua amaitutzat ematea, esleipendunei egozgarriak diren arrazoiagatik eta likidazio proposamena jakinaraziz.

Ikusirik, esleipendunek likidazio horren aurkako adierazpena egin dutela.

Kontuan hartuz, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007ko Legearen 196 eta ondorengo artikuluetan xedaturikoa kontratuen exekuzioari buruz eta kalte-ordainei buruz.

Kontuan hartuz, lizitazioa arautzen duten baldintza administratibo partikularrek arautzen dutena kontratuaren exekuzio eta esleipendunaren obligazio eta betebeharrei buruz.

Kontuan hartuz, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legea Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 22 artikuluan ezarritakoa, eta urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bigarren xedapen gehigarrian arautua, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Eskaeragileek egindako eskaera partzialki onartzea.

Bigarrena.- Gorka Igartuari, bera bertan izan den garaikoa proportzionalki egozte soilik.

Hirugarrena.- Likidazio berria egin eta esleipendunei jakinaraztea.

Laugarrena.- Likidazio proposamen berria jakinaraztea eta 10 eguneko epea ematea alegazioak egiteko. Ezadostasuna adieraziko balitz, espedientea Euskal Gobernuko Aholku Batzorde Juridikora igorria izango da

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

SEIGARREN GAIA
2009KO EKITALDIKO AURREKONTUAN LEHENENGO KREDITU ALDAKETA
ONARTZEA.

2009 urteari dagokion ekitaldia amaitzean dagoenean, aurrekontua eta egindako gastuak doitzeko, beharrezkoa ikusten da urtealdi honi dagokion lehenengo



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

kreditu aldaketa espedientea aurrera eramatea. Behar honen arrazoi nagusia da, azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuak, Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondoa Eratzen Duenak suposatu duen dirulaguntzen gehikuntza eta derrigorrezko gastuak islatzea. Izan ere, aipatutakoak partida berrien sorrera ekarri du eta guztia aurrekontuan agerrarazi beharra dago (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua).

Jasandako gehikuntzak ondokoak dira:

KAPITULUA	Aurreikusia	Errealak	Ezberd.
6.- Inbertsio Errealak	536.561,12.- €	568.773,11.- €	32.211,99.- €
Guztira			32.211,99.- €

Gastu hauen gehikuntzaren arrazoia, esan bezala, azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege-Dekretuak behartutako inbertsioa izanda. Behartutakoa eta, aldi berean, finantzatutakoa.

KAPITULUA	Aurreikusia	Errealak	Ezberd.
7.- Kapital transferentziak	522.095,94.- €	554.307,93.- €	32.211,99.- €
700.112.00.01 Estatuko transferentziak	--	32.211,99.- €	32.211,99.- €
Guztira			32.211,99.- €

Ikusita idazkari – kontuhartzailearen txostena, Udaltzako aho batez erabaki du

Lehenak. Udaltzako honen 2009ko aurrekontuaren lehenengo kreditu aldaketa espedienteari behin behineko onarpena ematea gastuen murriztapen modalitatean.

Bigarrena. Indarrean dagoen legediak xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendaurrean erakusgai jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatzea, espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, 19:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.